

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!


# Lurjale



2 zbk.

2005eko urtarrilaren 9a

## Atzoko Amasa eta Villabona



# AMASA ETA VILLABONA

**G**armendi, Igerategi, Oloro, Artatolosa, Zabalegi, Otxandola, Sisoro, Aldeiturri, Urrizti, Arantzabi, Esolaga edo Musturi Azpi goian. Subijana, Txokolo, Barrenetxe, Xubiaur, Albaite, Agaraitz, Aiestaran, Exekiel, Anttonenea, Iru Aldeta, Sorrodore edo Etxe Ondo behean. Santa Kruz ermita eta Pietateko Andre Mariarena. Tourseko San Martin eliza eta Jesusen Bihotza. Mendibidea

eta herribidea. Baserria eta kale-etxea. Malkarra eta zelaia. Amasa eta Villabona.

Gaur egungo Amasak eta Villabonak ez dute zerikusirik duela urte batzuetako herriarekin. Atzera begiratua egitera goaz. Nolakoak ote ziren kaleak eta bideak? Ermitak eta elizak? Etxeak eta baserriak? Hamaika pasadizo dakargu oraingoan ere, zatoz gurekin!

## VILLABONAKO AUZOAK ETA ETXEAK

Lumaneko koadrila ume zen garaian, Villabonan bi kale besterik ez ziren; Kale Nagusia eta Kale Berria. Karkaroa aurkitzen zen bi kale horien artean, egun, Santio kalea izenarekin ere ezagutzen dena. Kale Nagusia adokinatua zen, hasi punta batetik eta besteraino. Bertako baserri-etxe nagusiak: Zubiaurre (egungo Ula auzoan), Barrenetxe (Karkaroan), Txuine (egungo Kultura Etxea), Martin Txiki (Subijana lantegiaren ondoan) eta Errexil (guardia zibilaren koartela zen. Legarretako zubiaren alboan zegoen, kiroldegia dagoen horretan). Aurrerago jarraituta, Etxauntxiki (elizaren bestaldean), Etxe Ondo eta alboan Sorrodore... Elizaren atzean, etxe aipagarri ugari: Mojen etxea, jauregitarrena, Subijana etxea... Kale Berrian, berriz; Iru Aldeta (izen bereko tabernaren parean), pereztarren etxea, Sorondoenea, Urdapilleta (beranduagokoa dela aipatu duten arren) nahiz Saizar etxea. Txokolo ize-

neko bi etxe zeuden; bata Salvadora ondolan, Txokolo Zar deitzen zena eta bigarrena, Berdura Plazan, Txokolo izenekoa. Izen hori, etxeko nagusiek txokolatea egiten zute-

lako zetorkion. Txokolateaz gain, piperrezko erroskilak, erroskila gozoak nahiz kandelak ere egiten zituzten eta plaza inguruko etxean, konfiteria ere bazuten.



Berdura Plazatik abiatuta, Kale Nagusian ageri diren etxeak, hauxek; Aiestaran, Albaite, Periodista, Anttonenea, Larrañaga, Olaso, Exekiel eta Barrenetxe.

## PIETATEKO ANDRE MARIAREN ERMITA ETA JESUSEN BIHOTZA ELIZA

1909 urtean altxatu zuten Villabonako Jesusen Bihotza parrokia; ordura arte, eliza nagusia Amasako Tourseko San Martin izan zen eta horren aurretik, Amasako Santa Kruz ermita. Hala ere, Villabonako herriarrek Berdura Plazan, Pietateko Andre Mariaren ermita zuten, 1594 urtean eraikia. Ermitara jende ugari gerturatzen zen meza entzutera eta txikia geratu zenez, jai egunetan, meza bat baino gehiago emateko eskatu zuten. Meza Nagusietara Amasara igo behar izaten zuten villabonatarrek

eta Villabonan apaizaren beharrean suertatzen zirenean, denbora luzea igaro behar izaten zuten, askotan, zain. Arrazoi horiek medio, ika-mikak sortu ziren. Villabonan Jesusen Bihotza parrokia eraiki zutenean bota zuten Berdura Plazako ermita.

“Gukez genuen ezagutu, gurasoei entzunda badakigu ermita hura egon bazegoela. Gure gurasoak jaio baino lehenagokoa izan zen” azaldu du Isabelek. Joxek, ermita bota ondoren, labaderoa eraiki zutela adierazi du; “guk labaderoa ezagutu genuen. Piorekin

egurra hartu ere egin genuen bertan”. Pio udaltzaina gizon ezaguna zen. Aurreko zenbakian ere bere aipamena egin zuten *Lumaneko* lagunek; gizon zorrotza izanagatik, irribarrea ahoan dutela gogoratzen dute. Anjelitoren aita, Jose Manuel Ugarte, “Chiquito de Villabona”, ermitako monagilloa izan zen umetan, 13 urte zituela-edo; pilotan jokatzen Brasiler joan zen arte. “Aitari entzun izan nion, horrenbeste mezatan lagunduta, meza osoa buruz zekitela. Behin, apaizez jantzea bururatu zitzaion aitari. Apaizaren

jantziak soinean, meza ematen hasi ziren eta apaiza agertu zen elizkizunaren erdialdean. Egur galanta jaso omen zuten. Txikitako gaiztakeriak!". Maritxuk, ermitaren inguruan, pasadizo bat entzun izan zuen, "garai hartan, lehortea zenean, errogatibak egiten ziren. Euririk egiten ez zuen urte batean, ermitako Ama Birjina hartu eta Otsa-biko errekarera eraman eta hankak bustitzea pentsatu zuten. Euria hasi omen zuen orduan eta berriro, Ama Birjina behera jaitsi eta lehengo lekura arte, hankak busti zizkioten arte, ez omen zuen atertu". Pieda-deko Andre Mariaren ermitan, bi santuri

egindako irudiak zeuden aldarean: Santio apostoluari eskainitakoa bata eta Santa Maria Magdalenari bestea. Migelek eman du azalpena, "Santio bidea Villabonatik igarotzen zen eta Kale Nagusian, Santio ospitala egon zen. Ibiltariaren aterpea zen hura. Ermitako santua Santio izatearen arrazoia hortik dator. Baita herriko jaiak Santioak izatearena ere". Anjel Egiñok ospitalaren nondik norakoak zehaztu ditu, "Villabonako herria sortu zenean eraiki zen ospitala, herriko lehen etxeetakoa izan zen. Duela gutxi bota dute etxea berriak egiteko, Ogi-goxo okindegiaren ondoan zegoen. Guketxea eza-



Isabel Beraza

*"Pietateko Amaren ermita, gure gurasoak jaio baino lehenagokoa izan zen"*

gutu genuen baina, ez ospitala". Migelek bertan aizpuruatarrak egoten zirela argitu du eta etxe horretatik atera zirenean, Santio ospitala eraiki zutela Larrean.

## UDALETXEA ETA DESAGERTUTAKO HAINBAT TXOKO

Kale Nagusiko ospitala eraiki zuten garairako, Villabonak ba omen zuen udaletxea. "Gaur egungo Udalaren antzekoa ezagutu genuen guk, arkupeekin. Hala ere, orain-goa handiago da" diote. Alkatetza, Amasako eta Villabonako ordezkariak txandakatuta izan zen hainbat urtean. Hasieran, urtero aldatzen zen agintaldia, eta urte batean amasarra eta hurrengoan villabonatarra izaten zen alkatea. Gerora, lau urteko legegaldiak izaten ziren, txandakatuta haiek ere. Nolanahi ere, *Lumaneko* koadrila jaio aurreko legedia izan zen hura, gure lagunek ez baitzuten txandatzeko hura ezagutu; bai ordea, entzun. "Udaletxeko eskoletara etortzen ginen gu ikastera. Emakumeak goiko solairura eta gizezkoak behekoa". Udaletxearen azpian bazen nahikoa txoko; atzealdean, izkina egiten zuela, arraindegia zegoen -egun, kale-garbitzaileek trasteak gordetzen dituzte bertan-. Arkupearen ezkerrean "kartzela" zegoen, aguazilek egiten zioten kontu. Erdirago, Alondiga ardotegia. Joxek taldekideen barre-algara eragin du, "beno, ura eta ardoa manipulatzeko ziren bertan" esan duenean. Herriko lehen matederoa ere udaletxe azpian egon zen eta baita Beloki harategia ere; gaur liburutegia dago-



Anjel Egiño

*"Guk Lizarraga administradorea ezagutu genuen, elikagaiak saltzera herrira zetorrenari, inpostua kobratzen zion"*

en lekuan zeuden biak, ate beretik zuten sarrera. Harategi hartan, -barrez gogoratzeko dute- nola haragia pisuaren gainean jartzen zutenean, saldu beharrekoak pisu gehiago hartzeko, behatza ere ezartzen zuten. Errebote Plaza ere, egungoaren antzekoa zen baina, egun baino gehiago jokatzen zen orduan errebotean. Ume ziren garaian, mikelteak ere bazeudela gogoratu du Encarnak, "haurtzaindegia dagoen etxean egoten ziren mikelteak". Gerora aurrezki-kutxa jarri zuten etxe horretan, Pellok argitu duenez. "Xegundak denda zeukan inguru horri, Katea deitzen zitzaion. Garai batean, hor kobratzen omen zuten herri-sarrerako inpostua". Anjel Egiñok

beraiek kobraketa hori ezagutu ez, entzun besterik egin ez zutela jakinarazi du. Itxuraz, barazkiak eta bestelako elikagaiak saltzera etortzen ziren baserriarrek, inpostua ordaindu behar izaten zuten, herrira sartu ahal izateko. Mikeleteek beraiek kobra zezaketan inpostu hori, bertan zeudenez, baina, datu hori ez da guztiz zehatza. "Guk Lizarraga administradorea ezagutu genuen, udaletxe azpian egoten zen eta hark ere lan bera egiten zuen; elikagaiak saltzera herrira zetorrenari, inpostua kobratu. Herri guztietan ordaindu behar izaten zen sarre-ra" argitu du Anjelek. Karkaro kalera etorritz, "Barrenetxe ibiltariaren aterpea zen. Dilljentiak-eta herriko igarotzen zirenean, denak geratzen ziren bertan" gogoratu du Migelek. Parrokiko zentroa, gerora Gurea zinema eraiki zuten gunean kokatzen zen. Bertan herriko gazteak elkartzen ziren, aisialdia igarotzeko. Parean berriz, Galerías Maria Jesus denda egon zen lekuan, Zentroa kokatzen zen. Kultur emanaldiak eskaintzen ziren han. "Señoritoek eskaintzen zituzten ekitaldiak. Antzerkia eta musika emanaldiak, batez ere. Taberna bat ere bazegoen barruan. Egoitza handia zen. Kanpoko jendea ere etortzen zen".

## ZUBIMUSU ETA LEGARRETAKO ZUBIA

Santio bidearen igarobide den Zubimusu, egungoaren berdin-berdina ezagutu zuten hizlariak. Kale Berria adokinatzen eta Zubimusu eraikitzen, Migelen aitona Antton Subinas eta Aizpurua aritu ziren, arduradun lanean. Bi gizonak, 1860 urte aldera, Itziartik

Villabonara etorri ziren lanera. Anttonek, plazako Anttonenea etxea erosi zuen eta bertan geratu zen bizitzen. Aizpurua, berriz, Zizurkilen. Harginak ziren biak eta langile gehiagoren laguntzaz, urte askoan zehar, zubi ezaguna burutzeko nahiz Kale Nagusia ado-

kinatzea lortu zuten. Zubimusuk badu balio historikorik; hala ere, inork gutxik jakingo du ondorengo kontu bitxi hau: Errekaren bi aldeak batzeko, zubia egitea erabaki zuen udaletxeak. Herriarrek bi proposamen luzatu zituzten. Batetik, Txokolo Zarrek, Sal-

vadora papertegia dagoen horretan eraikitzea proposatu zuen. Izan ere, Ubare Villabonako lurretan zegoen, eta egokiago iruditzen zitzaion, herriko biguneak lotzea. Barbek, ordea, Villabona eta Zizurkil lotzeko ideia luzatu zuen. Itxuraz, garai hartan, herriko denda guztiak alde hartan zeuden, eta inguruko herrietatik, bertara gerturatzen zen jendea erosketak egitera. Bi aukerak aintzat hartuta, bozketa egin zen herrian eta Barberen proposamena izan zen garaile. Hantxe eraiki zuten, beraz, zubia. Egin zuten garaian, gurdiren bat igaroko zen tar-

teka. Egun, zenbatzea ere zaila den auto, autobus eta kamioi mordo. Zubiko lanak burutzeko nahiz Kale Nagusia adokinatzeneko harriak nondik ekarri zituzten zehaztea, ez da kontu erraza. Pentsa daiteke, Andoaingo edo Amasamendiko harrobitik ekarriko zituztela. Gainerakoan, Legarretako zubia ere ezaguna da herrian ('Sacem-go zubia' moduan ezagunagoa, seguru asko). 20ko hamarkadan eraiki zen aipatu zubia, Legarreta auzoko baserritarrek, herrira etortzeko bidea izan zezaten. Sacem lantegi ezaguna, beranduago egin zuten; 40ko hamarka-



**Migel Lertxundi**

*"Errekaren bi aldeak batzeko, zubia egitea erabaki zuen udaletxeak"*

dan, hain zuzen ere. Orduz geroztik, askorentzat, lantegiaren izena hartu zuen Oria ibaiaren gaineko zubiak.

## AUTO GUTXI, TRANBIA NAGUSI

Villabonako Kale Nagusia adokinatua bazen, Kale Berrian tranbia eta auto bakan batzuk igarotzen ziren. "Orduan ez zen autorik. Gerra aurretik, herrian sei bat auto izango zen" diote. Norbanakoek baino errazago, lantegiek zituzten garai hartan autoak. Anjelito, pilotari zela, Ameriketatik itzuli zen batean, autoarekin egin zuen. "Garai hartan, Villabonan, bost bat herritarrek izango genuen autoa. Gaur Villabonan, bost

bat izango gara autorik ez daukagunak". Autoak gutxi, orduan tranbia garraio bide erabiliagoa zen. Tolosatik Donostiara eta Donostiatik Tolosara egiten zuen ibilbidea, "gaurko autobus berdeen antzera". Villabonan, Kale Berrietik igarotzen zen eta geldialdi bat baino gehiago egiten zuen. "Donostiatik Tolosarako bidean, Agaraitzen geratzen zen lehenik, Izkinako bidegurutzean gero eta hor, Zubiaurre etxea-

ren parean, Tolosatik zetorren tranbiarekin gurutzatzeko, geldialdi luzeagoa egiten zuen. Errail bikoitza zegoenez, pasaerako bidea uzteko aukera izaten zen. Zentrala, egungo estankoa baino pixka bat goraxego zegoen. Bertan Patxi egoten zen, alpagatak josiz. Tableroekin ematen zion irretako seinalea tranbiari" ondo gogoan du Pellok. "Alpagatak josi ere bai baina, alpagaten zolak egiten zituen gehiago Patxi" zehaztu du Encarnak. Zentralaren inguruan pastel goxoak saltzen zituzten denda ere bazegoela adierazi dute. Zentrala eta gero, tranbiak Subijanan zuen hurrengo geltokia. Subijanatik Sorrodore pareraino joaten zen eta handik Laskibarreraino. Tolosatik Donostiarako bidean ere, geldialdi berdinak egiten zituen, beraz, kontrako bidean. Txartelak tranbian bertan hartzen ziren, eta ez zentrolean. "Zentrolean, enkarguak utzi eta jaso ere egiten ziren". Lumaneko hizlariak ibiltzen ziren tranbian eta ume ziren garaian, zenbaitek, bihurrikeriak ere egiten zituen. "Tranbia martxan zegoela igo eta tranbiako langileek ikusi aurretik, salto egiten genuen. Guk ere halako edukazioa izango genuen baina, tranbiako langileak ere egoskor konpletoak ziren" adierazi du Joxek.



Tranbia, Izkina paretik igarotzen. Aurrean, barbetarren etxea eta Perratzailena. Bidean, baserritarra idiekina.

## 'PETIT PARIS', 'BEREZ BEHAR VILLABONAKOA' ...

Oso jende apaina zelako deitzen zitzaion 'Petit Paris' Villabonari. Arrazoi beragatik esaten omen zen 'Berez behar villabonakoa'. Pellok, izebak esaten zien pasarte bat ekarri du gogora: "Gure etxearen aurreko nagusiak, 'Villabonatarak ttonttorra goian' esaten omen zuen, Villabonakoak handi-

ki samarrak zirela aditzera emanaz". Pilotari askoren herria zenez, jende asko etortzen zen eta musika bandak egiten zuen ongi-etorria. "Uzkudun boxeolaria ere etorri zen Villabonara. Hortza guztiak urrezkoak zituen, denak. Musika bandak ongi-etorria egin eta gero, Txokoloko Gregori

atera zitzaion lore-sorta batekin". Villabonan bazegoen garai haietan tenis pista bat eta tenis txapelketez gain, izugarritzko berbenak antolatzen ziren bertan. Garai batean, Villabonako familia gehienek, munduko txanpon ezberdinen berri bazekiten; dolarra, lira italiarra, kruzeiro brasildarra, peso

mexikarra edo kubatarra... Izan ere, familia gehienek bazuten seme pilotariren bat. Munduko txoko ezberdinetatik txanponak bidaltzen zituzten herrira. Hori, Villabona *Petit Paris*ekin erkatzeko arrazoietako bat izan zen. Garai batean, Villabonatik 165 pilotari atera zen munduan zehar jokatzera. Familia bakoitzean hiruzpalau pilotari izaten zen, oro har. Anjelitoren kasuan, "aitona, aita eta hirurok izan ginen pilotari eta kanpoan ibili ginen pilotan jokatzeko". Pilotaren sehaska izan zen Villabona; gerora, Markiña ere gehitu zitzaion. Urte haietan,



**Anjelito Ugarte**

*"Urte haietan, Gipuzkoa oso kontuan hartuta, Villabonan besterik ez zen ikusiko hainbeste zetazko alkandora"*

Gipuzkoa osoa kontuan hartuta, Villabonan besterik ez zen ikusiko hainbeste zetazko alkandora. Pilotariak kanpotik etortzen zirenean, familiakoei opari ekartzen zizkieten atorrak, eta noski, etxeok alkandora horiekin ateratzen ziren kalera, gustura baino gusturago. Villabona, edari hotzak edaten ziren inguruko herri bakarra ere izan zen. Bermout-a edo bestelako edari hotzak edaten ziren. Edari hotz-hotzak, izoztuak. Eta ohitura hori ere Kuban, Brasilen edo beste lurralde beroren batzuetan izandako pilotariak ekarri zuten, guatekeak edo berbenak egiteko ohiturarekin batera. Hori dena entzunda, "nola begiratu gintuzten, ba, amasarrek?" dio Encarnak.

Villabonari eta villabonatarrei 'Petit Paris' edo 'Berez behar Villabonakoa' esaten zitzaie bezala, Amasak edo amasarrek ba al zuten makulurik? "Amasarrek ez. Han egoten ginen gu" adierazi du Encarnak. Ahalagoak-edo omen ziren amasarrek, "guri behintzat, villabonakoek burla egiten ziguten. Gu gutxiago bagina moduan" dio



**Encarna Yarza**

*"Villabonako neskek burla egiten ziguten amasarrei"*

Maritxuk. "Nik mutilengandik ez daukat ezer esaterik, baino neskegandik bai. Villabonako neskek burla egiten ziguten amasarrei". Isabel villabonatarrek harrirituta "batzuk izango ziren" gaineratu du eta bai, itxuraz, bereizketa hori, baserri girokoen eta herrikoen artean nabaritzen zuten amasarrek. Hala ere, "ez dakit gu bizkorragoak ez ote ginen" diote eta gutxi ibiltzen zirela amasarrek villabonakoekin. "Nik banuen Villabonako señoritak, Amasako mojetarra, eskolara etortzen ziren garaiko argazki bat, han Villabonatik etortzen ziren jende apainak ikusten ziren" adierazi du Encarnak, argazkia gogoan.

## SANTA KRUZ ERMITA ETA TOURSKO SAN MARTIN ELIZA

Amasako Santa Kruz ermita oso antzinakoa da, Tourseko San Martin eliza baino askoz ere lehenago eraiki zuten. Gipuzkoako lehenengotako ermita zen eta hasierahasieran, Gurutze-bideko gurutze bat besterik ez zegoen han. Maritxuk eta Encarnak, oraindik ere, gurutze hori bertan dagoela adierazi dute. Gurutzearen inguruan altxatu zuten gerora ermita. "Harkaitzean egindako ermita da hura, egurrezkoa du estalpea. Gurutzea kanpoan dago eta gurutzeaz gain, kapillatxo bat ere badago. Eraiki zutenean, ermita txikiagoa zen; gerora, handitu egin zuten. Prozesiak eta kalbarioak asko izaten ziren ermitan. Guk horrela ezagutu dugu hura". Tourseko San Martin elizaren lehen datu idatziak 1559 urtekoak dira. Elizaren erretaula oso garrantzutsutzat hartu izan da betidanik. "Guk erretaula eta aldea orain dagoen bezala-

xe ezagutu genituen, berdin-berdin. Gizonzkoen aldea batetik, eta emakumezkoena, bestetik". Amasako eliza eraikitzen, 298 urte igaro zituzten. Familia bereko lau belaunaldi ezberdinetako kideak izan ziren lanaren arduradun nagusiak. Hala ere, amasarrek auzo-lanean aritu ziren. Eliza altxatzeko harria, Loatzoko harrobitik ekarri zuten. Villabonan elizarik ez zen garaian, Amasara igotzen zen villabonatar asko mezetara, "Iruratik edo Andoaindik ere etortzen zen jendea Amasako meza entzuterara. Gu jaio aurretik gertatu zen hori; jaio ginezerako, Andoainen-eta bai baitzeuden elizak. Baina, hori esaten zen, kanpotik jende asko etortzen zela Amasako elizara. Gainera, elizkizun asko izaten zen Amasan. Esaterako, Aste Santuko elizkizun guztiak Amasan izaten ziren; parrokia Amasan zegoen, erretorea ere Amasan bizitzen zen".



Santa Kruz ermitaren estalpetik, Tourseko San Martin elizaren ikuspegia.

Aste Santuko ekitaldiak antolatzeko, bilerrak, Seroetxen egiten zituzten udaletxeo agintariek.

## AMASAKO MENDIBIDEAK ETA GURDIBIDEAK

Aldapeta izena zuen Amasako bideak, erdian esertoki txiki bat zuen eta jendea deskantsatzeko geratzen zen bertan. Egun ere, oinezkoentzako bidea izaten jarraitzen du Alda-

petak. Astoak -sesto eta guzti- ibiltzen ziren bertan eta, behiren bat perratokira jaitsi behar izanez gero-edo, bertatik jaisten ziren asko. Hori bai, animaliak banaka ibiltzen ziren

bide horretan, eta solte, ez gurdinari lotuta. Sorrodore baserri-errotaren atzetik abiatuta, Marrubitzatik barrena ere igo zitekeen Amasara. Aipatu bi bideak mendibideak

ziren. Bi bide horietan zehar, oinez nahiz animaliarene baten gainean edo alboan ibiltzen ziren herritarrek. Sorrodoreko bidea, Garmendi baserri inguruko jendeak elizara edo plazara igotzeko erabiltzen zuen batik bat, baita ume garaian eskolara igotzeko ere. ‘Marrubitzako estrata’ esaten zitzaion bide hari. “Amasatik Villabonara egunero jaisten zirenak, astoaren gainean ibiltzen ziren. Zaldiak eta behorrak ere baziren baina, plazatik urrunagoko baserrietan; mandoak gutxi, astoak ziren nagusi, dudarik gabe”. Maritxuk gogoan du hama-



**Joxe Ugartemendia**

*“Egurrezkoak ziren gurdiak eta burni bat zuten; ñi-ñi-ñi’ soinua ateratzen zuten”*

bi urte zituela hasi zela Villabonara esnea ekartzeko, “dozena bat urterekin hasiko nintzen Villabonara esnearekin etortzen eta 32 urterekin, Amasatik alde egin nuen arte, oso denbora gutxi izango zen ibili gabea. Behoko elizari, Villabonakoari, eliz berria esaten zitzaion eta hango petrilerara igotzen nintzen, astoaren gainera igo ahal izateko. Urteak egin nituen nik horrela; asto gris eder bat geneukan, eta haren gainean ibiltzen nintzen gora eta behera”. Bi bide horiek askotan lokaztuta egoten zirenez, Amasatik Villabonara jaisteko edo Villabonatik Amasara igotzeko, sarritan, oinetako zaharrak jantzita abiatzen ziren, eskuan oinetako garbiak hartuta. Bidea egindakoan, oinetako garbiak jantzen zituzten, txukun-txukun. Arrieta eta Borda baserri inguruko bidean, lokatz handia sortzen zen, “belaunerainoko lokatza izaten zen batzuetan. Harritik harriera eman behar izaten zen pausoa”. Amasara edo Amasatik trasteak edo pisuzko pakeak garraiatu behar zirenean, animalari lotu-



**Maritxu Mendizabal**

*“Asto gris eder bat geneukan, eta haren gainean ibiltzen nintzen gora eta behera”*

ta, gurdia erabiltzen zen. Irribarrea egin zaie gurdi haiek ateratzen zuten hotsa gogoratzean, “egurrezkoak ziren gurdiak eta burni bat zuten; ñi-ñi-ñi’ soinua ateratzen zuten. Orduan ezzen gomarik”. 1929 urtean, Amasarako errepede nagusia egin zuten bitartean, Arantzalde baserriatik barrena, gurdibidea zegoen. Otsabira ateratzen zen bide hura eta handik Altzo baserriera etortzen zen. Gurdibide horretatik, trastez betetako hamai-ka gurdi igaro zen garai batean. Amasako errepede nagusia egin zuten garai beretsuan iritsi zen argia ere.

## GARAI BATEKO AMASA

Garai bateko Amasak etxe gehiago zuen plazan: Seroetxe, Amallo, Frantsesanea, Organistanea nahiz Arantzalde. Herriko eskolak Seroetxe bota eta gero egin zituzten, baina aurretik, mojen eskola Santa Kruz ermitaren ondoan zegoen. Atzean, moja frantsesak bizi ziren, *Hijas de la Cruz*. Amasako baserri bat baino gehiagok balio handia du etnografikoki: Badiru Sisoro eta Larre baserriak, Erdi Aroan eraikitakoak direla. Garmendi, Etxezarreta, Bidarte nahiz Musturi Azpi baserriek, berriz, arku eta arku-

pe ederrak dituzte. Amasako baserri gehienek zutik jarraitzen dute egun ere. “Gu umeak ginela, orain baino baserri gehiago zegoen”. Batzuk galdu egin dira, erre edo erori egin direlako. Galdu direnen artean; Seroetxe bota egin zuten, Markelus edo Euxita erori egin ziren, nahiz eta azken hori berriro eraiki zuten. Arantzalde erre egin zen Baziren toleara barruan zeukaten baserriak eta sagardoa egiten zen bertan. Berezitasun moduan, Legarreta bailarako Legarbarrena baserrian, oraindik ere etxe azpian dago-

en arkupetik, errepede nagusia igarotzen zen. Garai hartan, Tolosa aldera zaldiz abiatuz gero, bertatik igaro behar zen. Arku bateatik sartu eta bestetik ateratzen zen, errepede berria egin zuten arte. Amasako baserrietan, familia artean egiten ziren, batik bat, baserriko lanak. “Amasarrak denak ezagutzen ginen, denak lagunak ginen eta denon berri izaten genuen. Familiaren bat eskasa baldin bazen eta lan asko bazuten, beste auzoetako jendea laguntzera joaten zen. Auzo-lana egiten zen”.

## AMASAKO ELIZAKO KANPAIAK; BATETIK HIRU

Amasako elizak hiru kanpai handi zituen. Hirurek batera ateratzen zuten hotsa, eskuekin golpeka eraginez gero. 1929 urtean, bueltaka soinua egingo zuten kanpaiak jarriko zirela zabaldu zen Amasan. Bilera baten ondoren, kanpai handienarekin bi edo hiru kanpai txikiago egin zitezkeela erabaki zen. Kanpaiak berritzearena, herritarren batek egina oparia izan zen. Haatik, ordaindu zutenak, ez zuen bere izenik esan eta ezta ordaindutako zenbatekoa ere. Kanpairik handiena dorretik behera jaitsi eta Iruñeako “Vidal Ericca Eroicoa” lantegira eraman zuten. Kan-

paiaren pisua, 2276 kilokoa zen eta hiru kanpai txikiago osatu ziren harekin. 1200 kilokoa bata, 900 kilokoa bigarrena eta 168 kilokoa hirugarrena. “Hiru kanpaiak Amasara ekartzean, herritarrek harrera egin zieten eta izugarritzko festa izan zen plazan. Kanpaien amandrea eta aita-jauna ere izendatu ziren; Arantzabi etxeko Dolores Garagorri eta Larrañaga baserriko Jose Domingo Sorrondegi”. Egun, hiru kanpaiak elizako dorrean daude eta erliebean idatzita dituzte pisuak eta ezarri ziren urtea, 1931 alegia. Kanpaiak eskuarekin bultzatuz jotzen

ziren baina, bueltara hasteko, kanpai bakoitzak bi pertsona behar izaten zituen albo bakoitzean. Pisuari erreparatuta, Gipuzkoa guztian, bueltaka jotzen diren kanpairik handienak dira. Eskualdeko herrietatik ez ezik, Albizturdik eta Bidaniatik ere entzuten omen dira kanpai hauek, baldin eta haizeak kontra jotzen ez badu. 1927 urtean, Aldeiturri baserrian jaiotako Tiburcio Vidaor amasarra etorri zen Argentinatik. Kanpaien doinua gustatzen zitzaioela-eta, igandetan minutu bat edo pare bat entzutearen truke, motor elektrikoa jartzea proposatu zuen.

## ITURRIAK EZ DIRA BETIKOAK

Amasako plazako iturria ez da beti bertan izan. Mende luzetan, Amasak ez zuen iturriarik. Iturburuak bai, bi zeuden. Bata, Etxezarreta baserriaren gainean, 350 metroko altueran, Anaerreak zuen izena. Bestea, Uxa Mendi baserriaren gainean. Herritarrak bi txokoetara joaten ziren ur bila, gertuen egokitzen zitzaizenera. Marmitak eskuan, etxerako ur bila astoaren gainean joaten ziren asko. Ganaduarekin ere bai beste asko. 1830 urte inguruan, hainbat amasar Argentina-ra abiatu zen lan bila. Haietako batzuk, urre itxuran ekarri zuten dirua, amasarrei iturri bat oparitzeko asmoz. Ordaindu zuten zenbateko zehatza ezagutzen ez bada ere, jakina da urre ontzatan ordaindu zutela. Uxa Mendi gaineko Urgoxo eta Eskumarraketa, bi iturburuetatik, ura ekartzeko bileta, Amasako elizan egin zuten. Baserritarrek auzolanean zabaldu zuten zanga, ura-



Plazako iturri ezaguna. Atzean Seroetxe eta Amallo baserriak.

ren ekarrerarekin pozik. Aipatu zanga, iturburutik, plazan kokatu zuten iturrira bitar-

tean zabaldu zuten. Eta iturria, 1867 urtean eraiki zuten, grabatuan ikus daitekeenez. Zanga, zegokion hodiarekin zabalitzen ari ziren moduan, hainbat ur irteera ezarri zituzten Amasan. Lehena Uxa Mendi baserriaren ondoan, askaz gain, garbileku eta guzti. Bigarrena, hiru Muñoki baserriek bat egiten zuten gunean, aska eta garbilekuarekin hemen ere. Hirugarren puntua, Goiko Etxe baserrien inguruan. Laugarrena Elizalde baserri-bailaran eta bosgarrena, plazan. Orduz geroztik, amasarrak iturrira joan ohi ziren ur bila eta ganadua, askatarra edatera, noski! Gerora, baserrietan nahiz etxetan ura jartzea erabaki zen. Bakoitzak bere kontura har zezakeen bere adarra. 1970 urtean Udalak kontagailuak jarri zituen, "Amasatik Argentina-ra lanera joan ziren herritarrek egin zuten oparia kontuan hartu gabe" Roberto Garateren hitzetan.

## VILLABONAKO 'BI-ITURRIAK' ETA MALKARRA IBILBIDEA

Pelloc eta Anjelek ondo gogoan dute nola Arratzaingo bidean aska bat zegoen, bertan ganaduek-eta ura edaten zuten. Jendea marmitarekin ere joaten zen ur bila, potajea egosteko edo edateko. Errepidea egiteko zuloa egin zutenean, ura atera zen goruntz. Orduan egin zuten iturria, 100 metro zulatu zutela esaten zen. N1 errepidea egin aurretik orde, inguru hori oso polita zen. "Herriko ibilbide politenetakoa, Malkarra deitzen

zitzeaion". Barriola etxearen paretik zetorren sarrerako bide bat eta elizaren aurretik bestea, Arratzain aldera zuzentzen zen bidea. Tilo zuhaitzez betetako pascoa zen. Jende ugari ibiltzen zen egun guztian zehar. "Oso paseo ederra zen, perezarren etxearen bueltan". Errepidea egiteko bota egin zuten Malkarra eta baita etxe mordoia ere: Barriola, Subijana, mojen etxea, jauregitarrena, Etxauntxiki, Lumane... "Momentuan, urra-

tu zuten garaian, tristura eta pena sentitu genituen. Gerora, aurrerapena ere ikusi genuen". Herria asko aldatu zen N1 errepidea egin zutenean, "guk ezagutu genuen herria askoz ere lasaigoa zen; oraingoaren erdia ere ez zen. Villabonan zenbat biztanle izango ginen; 1500en bat? Eta Amasan? Hazi egin da orain baina, biztanle gehiago izango zen agian garai hartan. Etxe bakoitzean anai-arreba mordoia izaten baitzen".

## AMASA ETA VILLABONA, MUGARIK BA OTE DA?

Amasako eta Villabonako mugez hitz egin aurretik, gatozen Zizurkil aldera; "Elbarrrenakoez villabonatarrek zirela esaten zuten, Santioetan ospatzen zituzten herriko jaiak". Tren geltokia ere Villabonako da, nahiz eta, Zizurkilgo lurretan kokatuta dagoen. "Hori apustu batean izan zen. Villabonako eta Zizurkilgo hainbat herritar afari baten inguruan bildu zen. Apustua irabazten zutenek beren herriaren izena jarriko zioten geltokiari. Villabonak irabazi zuen eta, orduz geroztik, Villabona-Zizurkil geltokia da hemengoa" azaldu du Isabelek, "gure aitak esaten zigun hori".

Amasa eta Villabonaren artean, berriz, ba ote da mugarik? Baldin bada, non dago? Otsabiko erreka, Lumane etxearen atzetik eta Etxauntxikiren aurretik igarotzen zen. Bi etxeen artean, beraz. Itxuraz, erreka hura hartzen zen Amasa eta Villabona bereizteko muga modura. Eta Lumaneko koadrilakoez non jarriko lukete muga? Encarnak, "Muga? Nik inon ez!". Anjelek, Maritxuk eta Joxek, Etxauntxiki eta Lumane etxeen artean igarotzen zen erreka aipatu dute. Pelloc berriz, "muga Anoetako gainean dago, Ateaga baserriaren inguruan. Anoeta, Villabona, Zizurkil eta Asteasu bereizten dira



Pello Iribar

"Nik ezagutu dudanez, Villabona eta Amasa herri bat izan dira. Guk herri bat ezagutu genuen"

bertan. Muga han dago eta ez hemen". Amasa eta Villabona, ez litzukete herri bezala banatuko, "erreka muga moduan hartu

arren, edo ahoz banaketa egin arren, mugarririk ez zen izango Amasaren eta Villabonaren artean. Hemen ez da horrelakorik ikusten". Amasarra edo Villabonatarra izatearen berezitasuna, baserrikoa edo kalekoa izatea zela diote. "Esaten zen batzuk besteak baino hobeto bizi ote ziren, hobek ote ziren... Baina horiek esamesak ziren". Lanbideak ere ezberdinak ziren, oro

har, amasarren eta villabonatarren artean. Pellok, "nik ezagutu dudanez, Villabona eta Amasa herri bat izan dira. Guk herri bat ezagutu genuen". "Guk ere bai" Maritxuk. Bi bailara eta herri bakarra. Hori bai, nongoak ziren galdetuz gero, bakoitzak berea defendatuko zuen. "Guk amasarrak ginea esaten genuen" amasarrek, "guk villabonatarrek" villabonatarrek. Amasarrek, Ama-

sa-Villabona erabili beharko litzatekeela diote. Anjelek, "Ondo, baina nik, Villabona-Amasa esango dut". Bakoitzak berea defendatzen duela argi dago, nahiz eta denek ez dioten gai horri garrantzia handirik ematen, "niri berdintsu zait" dio Pellok. Buruko-min handirik sortu ez baina, bakoitzak, bere ideiak eta herriarekiko sentimenduak gordetzen ditu barruan.

Ondo gogoan dituzte, gure lagunek, garai bateko kontuak. Hamaika pasadizo ekarri dute orainera, giro atsegin bezain alaian. Haien esanak irakurtzea eta haiengandik ikastea lan polita da irakurlearentzat. Mila esker *lumanetar* guztioi eta urte berri on!



Anjel Egiño



Anjelito Ugarte



Encarna Yarza



Isabel Beraza



Joxe Ugartemendia



Maritxu Mendizabal



Migel Lertxundi



Pello Iribar

## ...ETA HURRENGOAN ZER:

**B**aserriaz hitz egingo dugu *Lumaneren* 3. zenbakian. Bizitokia ez ezik, lantokia ere bazen baserria garai hartako baserriarentzat. Etxeko gela ezberdinen antolakuntzaren berri izango dugu, sukaldeak zuen funtzio garrantzitsutik abiatuta. Ukulua zen baserriaren beste gune nagusietako bat; aziendaren babestokia eta baserri-tarraren aterpeko lantokia. Babesean nahiz babesik gabe, lan egin behar izaten zuen baserriarrak. Baratzean edota inguruko ala urrutiagoko mendi-zelaietan. Barazkiak edo lurra lantzen. Batzuetan atxurra edo beste lanabesen baten laguntzaz, etxekoen edo auzokoen artean egin ohi zituzten lanak. Bestetan, animalia ondoan hartuta. Ganadua zaintzea ere baserriarraren eguneroko lana izaten zen. Garai hartan, ez zen oporrik izaten. Zein lan egiten zituzten orduko Amasako eta Villabonako baserriarrek? Zein lanabesen laguntzaz? Zer nolako emaitzak jasotzen zituzten? Hori guztiaren eta gehiagoren berri jakin-go dugu otsailaren lehen asteburuko aldizkarian. Ordura arte, segi ondo!



Amasako Pesus baserria, atzean Saletxea borda.

### ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna), artxibo ezberdinak eta Sebastian Insaustiren liburua. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

### EKOIZLEA



### BABESLEA



Eusko Jaurlaritza KULTURA SAILA